Beasaingo Udala

ESP. KODEA.	**2026KIBO0033**

ESPEDIENTEA	**Beasain Kirol Sariak 2026**
TITULARRA	**Beasaingo Udala**

GAIA.- 2026. urteko Beasain Kirol Sariak

Lehena.- Xedea. Helburu nagusia da Beasaingo edo Beasainen kirol alorrean lanean nabarmendu diren pertsona eta erakundei aipamen berezia egitea eta jendeaurrean esker ona adieraztea.

Bigarrena.- Izaera. Sariak ohorezkoak dira; hau da, ez dute inolako ekarpen ekonomikorik izango. Sari hauen bidez egindako lana jendaurrean goraipatu eta horretarako antolatuko den ekitaldian bakoitzari dagokion oroigarria emango zaie sarituei.

Hirugarrena.- Kategoriak. Sariak 2 kategoriatan banatu dira:

-Urteko Sariak
-Ohorezko Sariak

Laugarrena.- Urteko sariak.

1.Emakumezko kirolaria edo taldea.
2.Gizonezko kirolaria edo taldea.
3.Kirol Jardunaldia.
4.Erakunde Babeslea.
5.Sari Nagusia.

Epaimahaiak saridun guztiak izendatu ondoren, hauen artetik erabakiko du zein den Sari Nagusia 2026.

ASUNTO.- Beasain Kirol Sariak 2026

Primera.- Objeto. El objeto principal es reconocer y agradecer públicamente a las personas y entidades de Beasain y/o en Beasain que han destacado en su labor en el ámbito del deporte.

.

Segunda.- Carácter. Los premios serán meramente honoríficos sin aportación económica alguna y consistirán en un reconocimiento público de la labor desarrollada y en cuyo acto se hará entrega del recordatorio correspondiente.

Tercera.- Categorias. Los premios se otorgarán en 2 categorías:

-Premios anuales
-Premios honoríficos

Cuarta.- Premios anuales.

1.Deportista o equipo femenino.
2.Deportista o equipo masculino.
3.Acontecimiento deportivo
4.Entidad patrocinadora.
5.Premio Principal.

De entre todos los premiados el jurado decidirá quién es el premio principal Sari Nagusia 2026.

Beasaingo Udala

6. Beste Aipamen Batzuk.

Beasaingo kirolari edo kirol taldeeek kirol jardueretan izandako partehartze nabarmenak edo lorturiko emaitzak aitortzeko asmoz beste aipamen batzuk egingo dira. 2026. urtean nabarmendu diren Beasaingo kirolarien lorpenak omentzea da helburua. Epaimahaiak eskumena izango du aipamen bereziak izendatzeko.

Bostgarrena:- Izangaiak.

Edonorrek aurkez dezake izangai bat edo batzuk sari bakoitzerako. Beasaingo Udalak prestatutako aplikazioaren bitartez edo Antzizar Kiroldegian dagokion inprimakia betez aurkeztu beharko dira proposamenak.

Udalaren interesa izanik, Beasainen edo Beasaingo pertsona eta entitateek kirol alorrean egindako lan publikoki aitortzea, Udalarekin hitzarmena duten elkarteek iniziatiba horretan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartu dute eta horretarako pertsona arduraduna izendatuko dute. Izangai edo izangai batzuk Elkarteak aurkeztuko ditu kategoria bakoitzeko ezartzen diren sarietarako, adieraziz horiek lortutako merezimenduak zeintzuk diren.

6. Otros reconocimientos.

Cara a reconocer actuaciones destacadas y resultados obtenidos por los deportistas o equipos deportivos de Beasain se realizarán otros reconocimientos. El objetivo es homenajear a los deportistas beasaindarras que han destacado durante el 2026. Será potestad del Jurado realizar los reconocimientos que considere.

Quinta.- Candidaturas.

Cualquier persona podrá presentar una o varias candidaturas para cada categoría de premio. Las propuestas se podrán presentar mediante la aplicación informática creada a tal efecto por el Ayuntamiento o rellenando el impreso correspondiente en Antzizar Kiroldegia.

Siendo interés del Ayuntamiento reconocer públicamente la labor realizada en el ámbito deportivo por personas y entidades de Beasain, en este sentido, las entidades conveniadas con el Ayuntamiento se han comprometido a participar activamente en esta iniciativa y designará a la persona responsable para ello. Algunas propuestas serán presentadas por el Club para los premios que se establezcan en cada categoría, con indicación de los méritos obtenidos por los mismos.

Beasaingo Udala

Seigarrena.- Epaimahaia.

Proposamen guztiak aztertzeko, izangaien merezimenduak baloratzeko eta Urteko Sariak eta Aipamen Bereziak emateko Epaimahai bat osatuko da. Epaimahaikide izango dira Udaleko kiroletako zinegotzi delegatua, kiroletako arduradun teknikoa, komunikazio arduraduna eta talde aholku-emaile bat ondorengo kideekin:

1-Beasaingo kirolaren berri edota kirolari beasaindarren berri jarraitzen duen komunikabide edo kazetari bat.

2-Aurreko urteetako saridun bat.

3-Kirol elkarteetako ordezkari bat.

4-Kirol teknikari bat, kirolaren eta gorputz ekintzen esparruan izen ona duen pertsona edo entitatearen ordezkaria.

Epaimahaiak ondorengo irizpideak izango ditu kontuan izangaiak aztertzeko orduan, sari bakoitzerako eskatutako berezitasunen arabera:
-Urteko kirol emaitzak.
-Maila eta kalitatea. Kategoria.
-Kirolean erreferentea izatea.
-Jardueren maila, zein kudeaketaren kalitatea edo emaitzak.
-Kirolaren alde egindako lana eta eskainitako laguntza.
-Beasaingo herriaren irudia zabaltzea.

Sexta.- Jurado.

Para valorar todas las propuestas, los méritos de los candidatos y conceder los Premios Anuales y Reconocimientos se constituirá un Jurado. Serán miembros del jurado la concejala delegada de deportes, el responsable técnico de deportes, el responsable de comunicación del Ayuntamiento y un grupo asesor con los siguientes miembros:

1-Un medio de comunicación o periodista que siga las noticias deportivas de Beasain y/o sus deportistas.

2-Una persona o entidad premiada en ediciones anteriores.

3-Un representante de los clubes.

4-Un técnico deportivo, de referencia en el ámbito de deporte o representante de entidad deportiva.

Los criterios a tener en cuenta por el jurado para la valoración de los candidatos, atendiendo en cada caso al respectivo premio, son los siguientes:
-Resultados deportivos del año.
-Nivel y calidad. Categoría.
-Ser referencia en el deporte
-El nivel de las actividades, como la calidad de gestión y los resultados.
-Labor y colaboración por la promoción deportiva.
-Promoción imagen municipio de Beasain.

Beasaingo Udala

Epaimahaiak saridun bakoitzak saria merezi ahal izateko dituen merezimenduen zerrenda azaldu beharko du

La decisión del Jurado deberá de ir acompañada de los méritos por los que entienden que cada premiado o premiada es merecedora del premio.

Zazpigarrena.- Erabakia. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik aurkeztu.

Séptima.- Resolución. La decisión del jurado será inapelable, y contra la misma no cabe recurso alguno.
.

Zortzigarrena.- Ohorezko Sariak.

Octava.- Premios Honoríficos.

Ohorezko 2 sari aurreikusi dira:

Se contemplan 2 premios honoríficos:

-Kirol Ibilbideari Ohorezko Saria. Beasaingo Udalak eskumena izango du, egoki ikusiko balu, Kirol Ibilbidearen Saria emateko, Beasaingo pertsonen edo entitateen ibilbide bikaina aitortzeko helburuarekin..

-Premio Honorífico a la Trayectoria Deportiva. El Ayuntamiento se reserva la potestad para otorgar el Premio a la Trayectoria, con el objeto de reconocer la trayectoria de beasaindarras o entidades de Beasain en el mundo del deporte.

-Ohorezko Beasain Saria. Beasaingo Udalak eskumena izango du, egoki ikusiko balu, Ohorezko Beasain Saria emateko. Ohiz kanpoko goresmen saria, Kirolarekin lotuta BEASAIN herriaren izena zabaldu duten pertsonen edo entitateen jardunbide bikaina aitortzeko helburuarekin..

-Premio Honorífico Beasain. El Ayuntamiento de Beasain se reserva la potestad para otorgar el Premio Honorifico Beasain. Un reconocimiento extraordinario a las personas o las entidades que por su buen hacer en el deporte han promocionado o destacado el nombre del municipio de BEASAIN.

Ohorezko bi sariak Alkatetzak ebatziko ditu.

Ambos premios honoríficos serán otorgados por resolución de Alcaldía.

Bederatzigarrena.- Oroigarriak. Kategoria bakoitzari dagokion oroigarria emango zaie sarituei horretarako antolatutako ekitaldi publikoan.

Novena.- Recordatorios. Se hará entrega del recordatorio correspondiente a cada categoría en acto público organizado a tal efecto.

Beasainen 2026ko urriak 14